**2008ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 14 TOKI ERAKUNDEENTZAKO ETA AHOLKULARITZA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2008**

**Departamento:** 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 14 ASISTENCIA Y ASESORAMIENTO A ENTIDADES LOCALES

## SAILAREN MEMORIA

## I. MEMORIA

GASTUAK

Programaren helburu orokorra *Arabako Toki Erakundeek euren funtzionamenduan eta antolakuntzan erabateko garapena lortzea* da.

Azpiprograma horrek biltzen dituen jarduerak zenbatzen zaila da, lortutako helburuei dagokienez. Oro har, esan daiteke helburuak bete direla, aurrekontuetako zuzkidurek ahalbidetu duten heinean. Egindako jardueren artean hauek azpimarra daitezke:

- Aldundiak, ekitaldian zehar, hainbat toki erakunderen epaitegietako abokatu defentsa eta ordezkaritza bere gain hartu izanaren gastuak.
- Lege eta Ekonomia Aholkularitzaren Zerbitzuko eginkizunak behar bezala betetzeko behar den material bibliografikoa erostea.
- Arabako Kontzejuen Elkarteari laguntza ematea, zenbait gasturi aurre egin ahal izateko: langileek eta funtzionamenduak sortzen dituztenak.
  - Izendegia egiteko eta hedatzeko gastuak, arabar guneetako biztanleria zehatz ezagutzeko.
  - Toki Erakundeen Bizi Administratiboa Aplikazioaren Kalkulu Zentroaren mantenu eta eguneratzeari lotutako gastuak; Zentroak Kontzejuetako ordezkariei, zerga tipoei, toki erakundeen aurrekontuei buruzko informazioa ematen du.
  - Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei aplika dakiekeen arautegiari, haien laguntza organoei, antolakuntza araubideari, kontuei, ondasunei, administrazio kontratazioari eta haien intereseko beste kontuei buruzko gida praktikoa egitea.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

## I. MEMORIA

GASTOS

El objetivo generalista que persigue el Programa queda establecido como *el logro del óptimo desarrollo en su funcionamiento y organización, de las Entidades Locales alavesas*.

Las actividades que engloba este subprograma son de difícil cuantificación en lo referente a logro de objetivos. En líneas generales puede afirmarse que los objetivos se han cumplido en la medida en que las dotaciones presupuestarias lo han hecho posible. De entre las acciones desarrolladas cabe destacar :

- Los gastos derivados de la defensa letrada en juicio y de representación de diversas Entidades Locales, de los que se hizo cargo la Diputación durante el ejercicio.
- Adquisición de material bibliográfico necesario para el correcto cumplimiento de las funciones del Servicio de Asesoramiento Jurídico-Económico.
- Concesión de ayuda a la Asociación de Concejos de Alava para hacer frente a diversos gastos de personal y otros inherentes a su funcionamiento.
  - Gastos relativos a la elaboración y difusión del Nomenclator, centrado en conocer con exactitud la población de los núcleos alaveses.
  - Gastos relativos al mantenimiento y actualización por parte del Centro de Cálculo de la Aplicación Vida Administrativa de Entidades Locales, que proporciona información sobre representantes de Concejos, tipos impositivos, presupuestos de diversas entidades locales.
  - Realización de una guía práctica de los Concejos del Territorio Histórico de Álava sobre la normativa aplicable a los mismos, sus órganos de apoyo, el régimen de organización, las cuentas, sus bienes, la contratación administrativa y otras

- Toki erakundeen garapen informatikoa, Udalentzako kontraten bidez. Toki erakundeek haien kontabilitate, zerga kudeaketa, inbentario, errolda eta erregistro programei ematen dieten erabileraren CPD; horretarako Kalkulu Zentroari kudeatzeko eskatu zaio Udalei laguntza informatikoa emateko, arreta guneak erabiltzaileari toki erakundeen programa informatikoen erabilerari buruzko zalantzei dagokienez arreta ematea eta erakunde horiek izan ditzaketen hardware arazoak konpontzea izanik.

Aurrekontuetan zuzeneko eragin ekonomikorik ez duten bestelako ekintzak ere aipa daitezke.

- Izen aldaketei, banantzeei eta udal eta kontzejuak sortzeei buruzko espedienteak izapidetzea.
- Toki erakundeei ordenantzen eta arriskuak aseguratzearen inguruko aholkuak ematea, kontzeptuak argitzea eta egindako kontsultei buruzko txostenak bideratzea.
- Administrazio batzarretako kudeaketa batzordeak eta horietako kideak izendatzea, sortutako hutsuneak betetzeko.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Kontuan izanik zehazten den helburua, hau da, Arabako toki erakundeen funtzionamendua eta antolakuntza ahalik gehien garatzea, helburuaren betetze maila aztertzeko honako hauek hartu behar dira kontuan: batetik, ekintzak aurreikusitako ekintzekin bat etorri diren; bestetik, toki erakundeek adierazitako beharrei kasu egin zaien eta programan ezarritako helburuekin lotu diren. Bada, betetze maila altua izan da bietan.



cuestiones de su interés.

- Desarrollo informático de las entidades locales, mediante la contrata a Aytos. CPD de uso de sus programas de contabilidad, gestión tributaria, inventario, padrón y registro por parte de las entidades locales, y mediante la encomienda de gestión al Centro de Cálculo para el soporte informático de los Ayuntamientos, centrándose en la atención al usuario para dudas de uso de programas informáticos por parte de las entidades locales, y en atender problemas de hardware por parte de las citadas entidades.

Además, pueden citarse otras acciones sin repercusión económica presupuestaria directa:

- Tramitación de expedientes de cambio de denominación, así como de desanexiones y constituciones a niveles municipal y concejil.
- Asesoramiento a Entidades Locales en materia de Ordenanzas, de aseguramiento de riesgos, aclaración de conceptos y evacuación de informes sobre consultas planteadas.
- Nombramientos de Comisiones y Vocales-Gestores de las Juntas Administrativas en las que se produjeran vacantes.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es el óptimo desarrollo en su funcionamiento y organización de las Entidades Locales alavesas, el cumplimiento de los objetivos viene dado no sólo por la adecuación de las acciones llevadas a cabo con las previstas, sino también en tanto en cuanto fueron atendidas las necesidades manifestadas por los Entes Locales, y relacionadas con los objetivos establecidos en el Programa. En ambos sentidos, ha de afirmarse que el grado de cumplimiento puede considerarse alto.